

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'El candidato' eta 'Ploey' filmak, gaurtik ikusgai

Bi pelikula jarriko dituzte asteburuan, Biterin. Gaur izango du aurreneko saioa, 22:30etan, *El candidato* filmak, gaztelaniaz. Gary Hart senatari estatubatuarren 1988ko kanpaina kontatzen du, eta astelehenera arte egongo da ikusgai. *Ploey* animaziozko filma, berri, bihar eta etzi jarriko dute, 16:30etan, euskeraz. Migratzeko garaia iristean, hegan egiten ikasi ez duen txori bat da protagonista. ■

■ HERNANI KONTRAKANTXA GAZTETXEA

Jantoki soziala eta 'Jam Session'a gaur, biharko Bulkada Egunaren aurretik

Hainbat zita jarri ditu Kontrakantxa gaztetxeak, bi egunetan. Gaur eguerdiko 13:00etatik 15:00etara izango da jantoki soziala, eta gaueko 22:30etatik aurrera, musika eta mikrofono irekia.

MAKINA bat ekintza izango dira Kontrakantxa gaztetxean, asteburu honetan. Eta bi zita-rekin egingo diote bidea gaur, biharko Bulkada Egunari.

Hasteko, jantoki sozialaren bazkaria izango da, eguerdiko 13:00etatik 15:00etara, nahi duten guztientzat irekia, gaztetxeak eta Langileon Babes Sareak antolatuta. Eta gauean, *Jam Session*ak jarriko du musika, 22:30etan hasita. Mikrofono irekiko saioa ere izango da ondoren, kantatzera animatzen direnentzat.

Mahai ingurua, poteo musikatua eta bazkaria, Bulkada Egunean

Bihar izango dira ekintza gehiago. Izan ere, Bulkada Eguna ospatuko dute gaztetxean, goizean eta eguerdian. Mahai ingurua egingo dute aurrena, 11:00etan, Hernaniko Gazte An-



Ekintzaz betetako asteburu izan zuen aurrekoa ere, Kontrakantxak, Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Topaketekin.

tolakundeko militante ohien esperientziak ezagutzeko. Poteo musikatua egingo dute gero, Garinen, eguerdiko 13:00etan; eta herri bazkaria azkenik, 14:30etan gaztetxean. Bazkarira

apuntatzeko, Garinen bertan dago zerrenda.

Bi kontzertu, bihar gauean

Eta bi egunetako programa borobiltzeko, musika izango da

bihar gauean ere. Bi talderen kontzertuak antolatu dituzte, 22:00etan hasita, Kontrakantxa gaztetxean: *Egurra Ta Kitto* talde azpeitiarra aurrena, eta *Hara!* ondarrutarra, gero. ■

■ HERNANI XAKEA

Eskolarteko Xake Txapelketa, gaur

Hernaniko Xake Elkarteak antolatuta, Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu da gaur, arratsaldeko 18:00etan hasita, elkarrearen lokalean (Aristizabal kalea, 6). Hiru maila izango dira: benjaminak (2009 edo geroago jaiotakoak), alebinak (2007 eta 2008koak) eta infantilak (2005 eta 2006koak). Informazio gehiago: xakeeskola@gmail.com edo 685 369 952. ■

■ ASTIGARRAGA XAGUXAR

Asteburu pasarako izena, gaur

Apirilaren 6 eta 7rako, asteburu pasa antolatu du Xaguxar Aisialdi Taldeak, 6-12 urte bitarteko haurrentzat, Oiartzungo Arritxulo aterpetxera. Izenematea gaur egin behar da, 17:00etatik 19:00etara, kultur etxean; eta momentuan egin beharko da ordainketa ere. 30 euro dira. ■

■ URUMEA ESKU PELOTA

Finalak gaur Txomiñenen, hernaniar eta astigartarrek

Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketan, kontsolazioko finalak jokatu dituzte, Goikoetxea eta Azpeitia hernaniarrek, eta Manterola eta Goñi astigartarrek. Goizuetan, hiru partidu izanen dira.

ESKU pelotarekin, hainbat zita izango dituzte gaur, Urumea bailara osoko gaztetxoek. Eta partidu garrantzitsuenak, Astigarragako Txomiñene frontoian jokatu dituzte, arratsaldeko 19:00etan hasita. Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketan, kontsolazio finalak jo-

katuko dira bertan. Bigarren urteko alebinena jokatu da aurrena, eta Unax Goikoetxea eta Oier Azpeitia hernaniarrak ariko dira, Intxurreko Collado eta Agirreren kontra, txapeketa bikaina borobiltzeko. Eta ondoren, Manterola eta Goñi astigartarrek jokatu dute, infan-

tilen bigarren mailakoa, Kuku taldeko Gonzalez eta Oterminen kontra. Infantilen aurreneko mailakoa jokatu da azkenik: Gazteleku eta Zazpi Iturri.

Hiru partidu, Goizuetan

Goizuetan ere izanen dira hiru partidu gaur, 18:45etan, Nafar

Jokoetan; Goizuetako hiru bikote, Errekako hiruren kontra: Josu Alsua eta Mattin Garmendia, Oteiza eta Mariezkurrenaren kontra; Adur Sagardui eta Axel Salaberria, Subizar eta Ezkurraren kontra; eta Anartz Lujanbio eta Xanet Apezetxea, Telletxea-Barbarinen kontra. ■

■ HERNANI PRESOKA

Kontzentrazioa gaur, Plazan

Hernaniko Preso eta Iheslarien senide eta lagunek deituta, kontzentrazioa egingo dute gaur, 20:00etan Plazan. ■



MARISCOS HERNANI
Javier Juaristi
609 674 344
Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA
Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak
www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

Latxe
Urumeako bitxitan barrena
8. alea kalean!
Latxetikronika.eus
943 33 08 99

GAUR Haizea aldatuko da, hegoaldeko sartuz, eta horrekin batera, gora egingo du tenperaturak, nabarmen. Giro eguzkitsua izango dugu, behin goizean goizeko lainoa desagertuta. **Min.4° / Max.20°**

BIHAR Berdintsu egongo da bihar ere. Zeru laino gubirekin agertuko da; soilik erdi- eta goi-mailako laino batzuk, arratsaldean. Tenperatura minimoak nabarmen igoko dira: **Min.8° / Max.20°**

(euskaime)

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Dobera Bazarra

Dobera Bazarra

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI BERRIAK ELKARTEA

500 euroko bi txartel zozketan, Hernani Txartelarekin erosita

Kanpaina berria jarri du martxan Berriak Elkarteak, eta apirilean zehar Hernani Txartelarekin ordaintzen den bakoitzean, aukera bat izango da.

BERRIAK Elkarteak kanpaina berri bat jarri du martxan, datorren hilabeterako, bertako merkataritza bultzatzeko asmoz; eta oraingoan, zozketa bat egingo dute: 500 euroko bi txartel zozketatuko dituzte, apirilean zehar Hernani Txar-

telarekin ordaintzen diren erosketa guztien artean. Hortaz, zenbat eta erosketa gehiago ordaindu Hernani Txartelarekin, orduan eta aukera gehiago izango dituzte bezeroek. Maiztzean jakinaraziko dute, zein diren bi txartelen irabazleak.

Hiru hilabete, gastatzeko Sarituek, hiru hilabeteko epea izango dute, txarteleko 500 euroak gastatzeko. Hori bai, soilik erabili ahal izango da, Kanpainen parte hartzen duten dendetan, Berriak Elkarteak azaldu duenez. ||

HERNANI UDALA

Airearen kalitatearen inguruan, «kontrolak zorrozteko» eskatu dio Udalak Eusko Jaurlaritzari

Gasteizen bildu ziren asteartean, Udaleko eta Jaurlaritzako ordezkariak, aire kalitatearen inguruko azterketaren emaitzei buruz hitz egiteko.

BILERA egin zuten asteartean Lakuan, Gasteizen, Hernaniko Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko ordezkariak. Bertan aurkeztu zizkieten, herriko airearen kalitatearen inguruan egindako txostenaren emaitzak, eta «isurketak hobeto kontrolatzeko pausuak eman ditzan» eskatu zieten udal ordezkariak, Luis Intxauspe alkateak eta Mattin Aldaia Ingurumen zinegotziak.

Ivan Pedreira Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren arduradunak, eta sail horretako teknikariak, berretsi zuten, Jaurlaritzak egiten dituela «isurketen inguruan indarrean dagoen legediak ezarritako kontrol guztiak», eta Hernaniko enpresek betetzen dituztela.

Bileran adostu zuten, Jaurlaritzak Udalarekin konpartituko dituela, «Ingurumeneko Baimen Bateratua duten Hernaniko enpresengandik jasotzen dituen datuak», Udalak berak azaldu duenez. Guztira, zortzi enpresak dute Baimen Bateratua Hernanin, eta urtero bidaltzen dizkiote Jaurlaritzari, haien isurketen datuak.

Udalak eskatu zion, bestalde, Hernani sartzea kanpaina berezietan. Izan ere, herrietan jartzen dituen neurgailu arruntz gain, kanpaina bereziak

«Industria guneetan sortzen da kutsadura gehien, eta sustantzia batzuek, baimendutako kopurua gainditzen dute maiz»

egiten ditu Jaurlaritzak, neurgailu mugikorrek. Udalaren eskaera kontutan hartuko dela azaldu du Jaurlaritzak.

«Legedia falta da arazo honen muina»

Udalak adierazi du, hala ere, «legedia falta» dela «arazo honen muina. European ez dago airearen kutsadurari irtenbidea ematen dion irizpide bateraturik. Hori dela eta, uste dugu legedia zorrotzago baten beharra dagoela gure herrialdean, aire kalitatearen inguruan». Hori lantzen hasteko pausuak emango dituztela adierazi dute udal ordezkariak.

Udalak azaldu du, «aspaldikoa» dela Hernanin, airearen kalitatearen inguruko kezka, eta «usainak eta bestelako isurketek herritarrengan sortzen duten ardura». Hori dela eta, herriko aire kalitateari buruzko azterketa eskatu zion Udalak, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoari. Unibertsitate horretako adituek, hainbat

neurketa egin zituzten herri osoan, eta bereziki, industria guneetan: «ia urte eta erdiz, oso kontrol zorrotzak egin ziren herri osoan, eta ohiko azterketetan neurtzen ez diren sustantziak neurtu zituzten», azaldu du Udalak; «emaitza horiek azaleratu zuten, kutsadura haundia pilatzen dela Hernaniko zenbait auzotan, eta momentu batzuetan, baimendutako mugak ere gainditzen direla».

Udalak nabarmendu du, aire kalitatearen kontrola Jaurlaritzaren eskumena dela, eta horretarako, neurgailu bat daukala, Hernaniko osasun zentroan: «horrek, airean dauden zenbait sustantzia neurtzen ditu, eta horren arabera, Hernaniren aire kalitatea ona da. Baina Udalak enkargatutako azterketa zorrotzagoa da, eta bertan ageri diren sustantzia asko, ez ditu Jaurlaritzak neurtzen», azaldu du.

Azterketaren emaitzen arabera, industria guneetan sortzen da «kutsadura gehien. Eta industria enpresa horien isurketen kontrola Jaurlaritzari dagokio; guztiak dute Baimen Bateratua. Baina azterketak airean antzeman dituen sustantzia batzuek, baimendutako kopuru maila gainditzen dute maiz», adierazi du Udalak. ||

PUBLIZITATEA | AMANE EKO-DENDA



Bizitza osasuntsu baten alde

Irazustabarrena Jauregi ahizpek bizitza osasuntsu baten aldeko apostua egin dute, Urbieta kaleko 7garren zenbakian. Nereak eta Amaiak gaurtik aurrera irekiko dituzte Amane ekodenda berriko atek herritarren osasun beharrak asetzeko.

Amane

Urbieta kalea, 7. Hernani
943 38 94 20 / 688 773 754

HERNANI UDAL LIBURUTEGIA



Dani Fano, bere liburuari buruzko azalpenak ematen, asteartean.

Estreinako saioa, komikien solasaldiek

Asteartean eman zieten hasiera, komikiei buruzko solasaldiei, Udala Liburutegian. Hainbat herritar gerturatu ziren, eta Dani Fano bertan zela, komikilari donostiarren liburuaz aritu ziren: *Miguel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak*. Alai Zubimendi komikilari hernaniarrak gidatu zuen saioa, datozenak bezala. Hurrengo, maiatzaren 21ean, 20:00etan, *El regreso del caballero oscuro* liburuari buruz. ||

ASTIGARRAGA MUSIKA ESKOLA

Lezoko musikarien kontzertua, gaur

Musika entzunaldi berezia izango da gaur, Astigarragako Musika Eskolako areto nagusian. Izan ere, Lezoko Tomas Garbizu musika eskolatik etorriko dira hainbat talde moderno, kontzertua eskaintzera. Arratsaldeko 19:00etan izango da, eta Astigarragako Musika Eskolako talde modemoek ere hartuko dute parte. Joan den urtean, astigarrak joan ziren Lezora, eta bisita bueltatuko diete lezotarrek, gaur. ||

HERNANI TXISTULARI JAIALDIA

Txistulari Gazteen Txapelketa, bihar

Asteburuan ospatuko dute, Hernaniko XIV. Txistulari Jaialdia. Eta bihar, aurreneko egunean, Txistulari Gazteen Txapelketa jokatuko da, Milagrosa kaperan: goizeko 11:00etan, 12 urte artekoak eta 13-16 urtekoak; eta arratsaldeko 17:00etan, taldeak. Ondoren egingo dute sari banaketa. Partehartzaileen artean izango dira lau hernaniar: Beñat Otamendi, Julen Beraza, Enara Arruti eta Manex Zabaleta. ||

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**